


Kostuen kontabilitatea

EAZ Gradua: bigarren ikasturtea

Irakaslea: Gotzon Garmendia Aldasoro

Azterketa (2019-2020)

Donostiako Ekonomia eta Enpresa Fakultatea
EHU



Egilea: Beñat Zunzunegi

Ebazpen estraofiziala:
egileak eta Gizapediak
ez dute ebazpenaren zuzentasunari buruz
inongo ardura bere gain hartzen.



Gizapedia

gizapedia.hirusta.io

KOSTUEN KONTABILITATEA LEHEN AZTERKETA PARTZIALA

Teoria

- (1) Enpresa batek bere merkaturatze lanak egiteko denda bat dauka. Denda horren kostua nolakoa izango da (KF, KA, zuzena, zeharkakoa, zein sailetakoa?). Arrazoitu.
- (2) Noiz ez da gomendagarria full cost kostu egitura erabiltzea? Zergatik?
- (3) Kontabilitatea finantzarioan onartu ez baino kostuak kalkulatzeko erabiltzen diren biltegiko irteera irizpideak zein dira? Zertan datzate? Noiz komeni zaigu horiek erabiltzea?
- (4) Zer da sail homogeen bat frantsesen iritziz?
- (5) Zertan datza zero oinarriko aurrekontua?

Oharra: idatzita erantzunak orri bakar batean, bi aldeetatik, eman behar dira.

(1) Galdera

- Denda horren kostua **finkoa** da, hango langileen soldata eta bestelakoak (argindarra, lokalaren alokairua, zabor tasa, ...) ekoizpenarekin loturik ez daudelako.
- Denda horren kostua **zeharkakoa** da, dendako kostua ezin baitzaio produktu jakin bati egotzi.
- Denda horren kostua **merkataritza saillekoa** da, enpresako produktuak saltzeko (eta ez ekoizteko) erabiltzen delako.

(2) Galdera

Full-cost kostu egitura ez da egokia produktu bat baino gehiago ekoizten denean, zeharkako kostuak produktuei egozteko irizpideak maiz argiak eta zuzenak izaten ez direlako. Kostu finkoak handiak direnean ere ez da oso gomendagarria: izan ere, zeharkako kostuak izaten dira askotan, eta produktu bakoitzari egozteak ez da guztiz zuzena. Gainera, kostu finkoak produktuei egozteak (izan produktu bakarra izan produktu anitz) ez da oso egokia, bereziki kostu horiek produkzioarekin loturik ez daudenean (merkataritza eta administrazio sailak). Hala ere, onartu behar da full-cost egiturarekin kostu finkoen kontrol zorrotzagoa egiten dela, horiek produktuen kostura, eta ez emaitzara, eramaten baitira.

Beste alde batetik, full cost ez da egitura egokia enpresak bere ekoizpen-ahalmen guztia erabiltzen ez duenean, kasu horietan okerra baita kostu finko guztiak produktuetara eramatea, kostu finkoen zati bat azpijarduera kostu moduan eraman behar direlako emaitzetara. Kasu horietan egozpen arrazionala burutu behar da.

(3) Galdera

Kostuen kontabilitatean onartu baina kontabilitate finantzarioan bazterturik daude biltegiko balorazio-sistemak LIFO, NIFO eta HIFO dira.

LIFO (Last Input First Output)

Izakinen balioa kontabilizatzeko (ez fisikoki), azkena sartzen den gaia ateratzen da lehenengo. Abantaila moduan, kontsumoaren kostua eguneratuta dago hornikuntza kostuaren arabera, baina biltegian geratzen diren izakinak kostu zaharren arabera geratzen dira baloratuta. Prezioak igotzen diren egoeretan, sistema kontserbadorea da beraz, kontsumo-kostuak badaezpada ere gehiegiz kalkulatu dituenak.

HIFO (Highest Input First Output)

Izakinen balioa kontabilizatzeko (ez fisikoki), garestiena den gaia ateratzen da lehenengo. Sistema kontserbadorea da (kontsumo-kostuak badaezpada ere garesti kontabilizatu dituenak). Prezio aldaketa asko daudenean erabiltzen da. Inflazioa dagoenean, LIFO eta HIFO sistema berdintsuak dira, horrelakoetan azkena garestiena izaten delako.

NIFO (Next Input First Output)

Oraindik gauzatu ez diren eragiketetan oinarritzen da. Sistema kontserbadorea da baita, eta inflazioa denean erabiltzen da.

(3) Galdera (jarraipena)

Kostu estandarra

Aurreikusitako kostuan oinarritzen da, eta gai guztiak kostu horretan baloratzen dira, lehena edo azkena zein kontuan hartu gabe. Sinpleena da kalkuluak egiteko, izakin guztiak prezio berean baloratzen direlako.

(4) Galdera

Sail homogeneoa baliabide berdinak erabiltzeagatik bertako kostu guztiak produktuei egotzi aurretik jasotzen dituen sail bat da, enpresako helburu, lan edo ataza batzuekin loturik. Sail erreal edo fisikoa izan daiteke, edo guztiz teorikoa, islada fisikorik ez duena.

(5) Galdera

Zero oinarriko aurrekontua iraganeko aurrekontuetatik abiatzen den aurrekontua da, hutsetik edo zerotik abiatzen dena, kontsumoak eta beste kostuak aurreikusteko. Gastu guztiak berriz ere aztertzen dira, eta soilik erabakigarrienak hartzen dira kontuan. Horren helburua baliabideak hobeto erabiltzea da, efizientzia gehitze aldera.

KOSTUEN KONTABILITATEA BIGARREN AZTERKETA PARTZIALA

Praktika

- Lehengaien hasierako izakinak: 5.000Tn, 190€/Tn.
- Lehengaien bukaerako izakinak: 3.000Tn.
- Hasierako bideango produktuak, 200.000€; eta bukaerakoak 300.000€.
- Produktu bukatuak hasieran: 1.000 unitate, 500€/unitate.
- Ekitaldian zehar lehengaiak bi lotetan erosi dira: 10.000Tn, 200€/Tn, lehenengo lotean; bigarren lotean, 5.000Tn, 210€/Tn.
- Hornikuntza eta eraldaketako beste kostu aldakorrak 1.000.000€.
- Hornikuntza eta eraldaketako kostu finkoak 300.000€.
- Merkataritzako kostu aldakorra 50€/unitate.
- Merkataritzako kostu finkoak 500.000€.
- Administrazio kostuak 700.000€ izan dira.
- Ekoipzena normalean 8.000 unitatekoa da, baina ekitaldi honetan 8.500 unitatekoa izan da.
- 7.000 unitate saldu dira, 1.000€ unitate bakoitza.
- Lehengaiak HIFO metodoaz eta produktu bukatuak FIFO metodoaz kontabilizatzen dira.

Egitura funtzionalaren eredua garatu, kostu finkoen egozpen arrazionalarekin. Kalkulatu ekoizpen kostua, osoa eta unitateko, emaitza eta bukaerako izakinak.

Kostu finkoen egozpen arrazionala

Benetako jarduera jarduera normalarekin zatitzen dugu, eta H (Hornikuntza) eta Eko (Eraldaketa) kostu finkoekin bidertu:

$$\frac{BJ}{JN} \times KF = \frac{8500}{8000} \times 300,000 = 318,750\text{€}$$

318.750€ekoizpen-kostura doaz, benetakoa baino 18.750 gehiago, baino gero emaitzan gehituko ditugu, konpentsatzeko.

Lehengaien kontsumo fisikoa

$5.000 \text{ (has.)} + 10.000 \text{ (1. erosk.)} + 5.000 \text{ (2. erosk.)} - 3.000 \text{ (buk.)} = 17.000 Tn$

Ekoizpen kostua

Egitura funtzionalean H eta E kostuak sartzen dira, kostu finkoen egozpen arrazionalarekin.

Kontzeptua	Zenbatekoa
2. erosketa	$5,000 \times 210$
1. erosketa	$10,000 \times 200$
Hasierakoak	2000×190
Lehengaien kostu totala (FIFO)	3.430.000€
H+E aldakorrak	1.000.000€
H+E finkoak (egozpen arrazionala)	318.750€
EKOIZPEN KOSTUA	4.748.750€
+Hasierako bideango prod.	200.000
- Bukaerako bideango prod.	300.000
PRODUKTU BUKATUEN EKOIZPEN KOSTUA	4.648.750€

Produktu bukatuen unitateko kostua $4.640.750/8.500 = 546.91 \text{€da.}$

Emaizta

Kontzeptua	Zenbatekoa
Salmenta	$7000 \times 1000 = 7.000.000$
(-) Ekoizpen kostua (FIFO)	(-) 1000×500
	(-) $6000 \times 546,91$
	(-) 3.781.470,59
Marjin industrialak	3.218.529,41
(-) Merk. kostu aldakorrak	(-) $50 \times 7000 = 350.000$
(-) Merk. kostu finkoak	(-) 500.000
Marjin komertzialak	2.368.529,41
(-) Admin.	(-) 700.000
Jarduerako emaitza	1.668.529,41
(+) Gainjarduera	(+) 18.750
Emaizta	1.687.279,41

Bukaerako izakinak

Kontzeptua	Zenbatekoa
Lehengaiak (FIFO)	$3000 Tn \times 190 = 570000 \text{€}$
Bideango prod.	300.000€
Prod. bukatuak (FIFO)	$(1000 + 8500 - 7000) \times 546,91 = 1.367.279,41 \text{ €}$
	(has + ekoiz - buk)
Totala	2.237.279,41€